


9. Euskalduntze berantiarra salatzen

(Denunciando la vasconización tardía)

Aitzol Altuna Ensunza



Aitzol ekonomilaria da ofizioz baina historiazalea afizioz. Berak kudeatzen duen lehoinabarra bloga gaur egun historia alorrean aktiboen dagoen guneetako bat da. Hor artikulu asko argitaratu du, ondo dokumentuta eta azalduta.

Nabarralde elkarteko partaidea da eta Nafarroak izan zuen garrantzia behin eta berriz ikusi daiteke bere ikerketa lanetan.

Euskalduntze berantiarraren hipotesia deuseztatzeko liburu bat idatzi zuen (*Desmontando la vasconización tardía*) eta orain beste liburu interesgarri bat kaleratu du: *El euskera en los estados en los que se ha hablado*.

Aitzolek euskalduntze berantiarrari eta historiari buruzko zenbait hitzaldi eman du.

Euskalduntze berantiarraren hipotesiaz (Goiena aldizkarian egindako elkarrizketa)

Zer da Euskalduntze berantiarraren hipotesiak planteatzen duena?

Tesi honek, 100 urte ditu, eta planteatzen dauana, gaurko Bizkaia, Gipuzkoa eta Araban bizi ziran herriek (karistioak, barduloak eta autrigoiek), ez ebela euskaraz berba egiten erromatarrak etorri aurretik, zelta hizkuntza bat baizik. Baina, V-VI mendean, gaurko Nafarroa Garaitik etorri zan baskoien inbasio batek, ekarri eban euskara.

Zeinek bultzatzen du eta zein arrazoi ematen ditu horretarako?

Espainiako historia akademikoek bultzatzen dabe orokorrean teoria hau azken 100 urteetan, salbuespenak-salbuespen.

Hauen buru, gaur egun, Martín Almagro dago, Real Academia de la Historia de Espainiako "anticuario perpetuo" titulua daukonak. Baina, batez ere, Alberto Santana, hau, Espainiako Universidad Nacional de Educación a Distanciako irakasle ohia da eta orain Bizkaiko Diputazioko funtzionarioa, baina ETBrako egindako lanengandik ezagunagoa dena: "Una historia de Vasconia" dokumentalak.

Ze arrazoi ematen dabe?

Ofizialki, euren ustez, hipotesi hori benetakoa dala, noski.

Zein puntura arte dago onartuta hipotesi hori euskal filologo, historialari eta bestelakoen artean?

Euskaldunen artean, batek ere ez dau onartzen, nik daki dala behintzat, eta ez dago hipotesi honen aldeko inongo lanik.

Euskaltzaindia kontra dago. UPV/EHUko irakasleen artean ere, ez dot bat bera ere ezagutzen hipotesi hau onartzen dauanik, ezta dokumentalean agertzen direnak ere ez. Alde dagoen Aranzadiko arkeologorik ere ez dot ezagutzen... eta abar.



Zu zeu hipotesiaren kontrakoan artean zaude, eta horren adierazle duela urte batzuk idatzi zenuen liburua. Ze hutsune ikusten diozu hipotesi hori sostengatzeko erabiltzen diren arrazoiei?

Alde historikoan: ez dago inongo dokumenturik inbasio horretaz aritzen denik.

Arkeologiaren aldetik: orain arte indusketa guztietan, jende beraren jarraipen bat egon dala argi gelditzen da, beraz, erromatar aurretiko gure arbasoak zeltak baziran, gu ere zeltak gara, eta horrek, ez dauka inongo zentzurik.

Epigrafia eta filologiaren aldetik: Koldo Mitxelena erabat kontra zegoen, nahiz eta dokumentalak bestelakoa esan. Nik Santanari Mitxelenaren testu zehatza eskatu neutsan, baina ez eustan emoten jakin.

Berriki, Luis Mari Zalduak euskaltzainak, martxoan atera dauan liburuan agerian gelditzen dan bezala, ez da posiblea hipotesia, ez baita ageri euskara edo latina izan zitekeen beste edozein hizkuntzaren aztarna nahikorik gure artean.

Gainera, bardulo, karistio edo autrigoien artean ere, euskarazko berbak agertu dira, nire liburuan edo blogean ikusi ahal dan lez.

ADN azken ikerketek ere, hipotesi hau desmuntatu dabe. Oxford eta Bartzelonako Unibertsitateko ikerketek demostratu dabe, azken 3000 urteetan, euskaldunok ez dogula ADN barririk jaso. Hau da, ez gara beste herri batzuekin, oraintxu arte, elkartu.

Honek esan gure dau, Goi Erdi Arotik hona, ez zala inor etorri, bertakoen esku zegoen lurralde hau. Orain 3000 urte baino gehiago zeltak bagina, orain ere izango ginatekela.

Beste hipotesi soil bat da euskalduntze berantiarrena, ala badaude bestelako interesak hipotesi horren atzean?

Bai noski. Arestian komentatutako espainiar historialari horiek, espainiol etnozentrismak eta nazionalistak dira.

Eurentzat, Espainia batasuna egiaren aurretik dago, eta teoria honek, horretarako, lagungarri suertatzen jake.

ETBko Vasconiako historia bat saioan euskalduntze berantiarraz egiten da berba. Eta horrekin oso kritiko agertu zinen bere momentuan.

Bai, ETBko zuzendari ohiarekin, Maite Iturberekin, zuzendariordearekin, euskarazko arduradunarekin, dokumentalaren zuzendariarekin eta Santana berarekin ere elkartu ginenean, eurei esan genien: Dokumentala gezurrak esaten dauzala, batetik ez dala barria, 100 urte daukazalako eta Koldo Mitxelena kontra agertu zalako eta ez alde, dokumentalean behin eta berriz esaten dan bezala, beste gauza askoren artean. Berrikuntza bakarra, Nafarroa Garaira, Akitaniatik etorri zala euskara esatea da, ordurako bertan galdua zelako.

Gainera, hipotesiaren kontra dagozan historialari edo arkeologoek iritziak nahita izkutatu dira. Euskaltzaindiako filologoak kontra dagoz eta gutun bat ere bidali eben ETBri, eta prentsan agertu zan gure gutuna sinatu eben hainbat historialari oso ezagunak ere bai kontra dagoz.

Eta egongo da galdetuko duenik: eta hau guztia, zergatik da garrantzitsua? Zergatik inporta du hainbeste euskara Gipuzkoara edo Arabara duela mende gutxi batzuk edo duela mende asko heldu izana?

Egia balitz, onartu beharko genuke eta kitxo. Baina, argi dago ez dala egia, beraz, horren atzetik beste intentzio bat dagoela argi dago, kasu honetan, esan bezala, espainol nazionalismoa.

Adibidez, hipotesi honen alde egon zan politiko eta historialari inportanteenak, Claudio Sánchez Albornoz errepublikarrak, esan eban bezala: “y me parece seguro que quienes hoy se llaman vascos – en verdad están vasconizados- no son, mal que les pese, sino españoles todavía no romanizados de manera integral”. Hipotesi honekin, euskara aurretik hemen latina berba egiten zala azpimarratu gure dabe eta ez euskara, Espainiako txoko guztietan bezala.



Sanchez Albornoz

Euskararen eta historiaren buelta beste liburu bat ere baduzu, orain ez asko argitaratu dena: *El euskera en los estados en los estados en los que se ha hablado*. Euskara berau hitz egin den estatuetan. Eta deigarria da, izan ere gehienei galdetuko baligute euskara ze estatutan hitz egin den, Espainian eta Frantzian esango genuke... baina gehiagotan ere bai historian zehar...

Bai, honetan ere euskaldunak kaka-nahaste izugarria dogu, eta gure burua txiki-txiki ikusten dogu beti. Estatu bat ere zer dan definitzeko zailtasunak ditugu, nahiz Estatu arrotz bi egunero sufritu.

Euskaldunok, gure Estatua sortu genuen Erromatar Inperioa jaustean, eta 1000 urtez, amaigabeko borroka batean, mantendu. Azken euskaldun askea, orain dala 400 urte jaio zan, 1620an, Nafarroako Erresuma Frantziaren menpe gelditu zanean.

Nire azken liburu honetan, Estatu bat zer dan azaltzen dot eta noiz sortu ziren Estatu modernoak. Zein estatuetan berba egin zan edo berba egiten da euskera, eta zein izan dira Estatu hauen politika euskerarekiko: Frantzian eta Espainian, baina baita Baskonia-Nafarroan, Aragoian, Biarno-Akitanian edo Andorran.